

PSIKOMETRIA: Testen Eraketa eta Erabilera.

Lehenengo Gaia: Psikometriari Sarrera.

Psikometria, psikologiaren barruan **neurketaz** arduratzen den alorra izendatzeko darabilgun terminoa da eta oinarritzkoa izango da psikologia zientifikoa eraikitzeke. Beste modu batera esanda, aldagai psikologikoen neurketarekin erlazionaturako ezagutzen diziplina da.

Diziplina metodologiko honek, psikologiaren edozein adar edo esparrutan du tokia: hezkuntzan, klinikan, erakundeetan, gizarte psikologian...

Bi maila bereiz daitezke ekintza psikometrikoan: **teorikoa** eta **aplikatua**.

- Teoria Psikometrikoa: lehen maila honek, neurketaren oinarritzko printzipioez arduratzeaz gain, psikologiaren barnean planteaturiko neurketa-arazoetan sakontzen da.
- Psikometria Aplikatua: bigarren mailak, eskala psikopedagogikoak sortzeko metodo eta bitartekoak hartzen ditu. Neurketa-tresnak psikometria aplikatuaren objektu izango dira.

★★★★★★★★★★★★★★★★

1.1. Psikometria Arloak

★★★★★★★★★★★★★★★★

Psikometriaren inguruko definizio guztiak laburbilduz, esan genezake psikologiaren esparruan neurketak planteatzen dituen arazoan analiziaz eta balioespenaz arduratzen den ikerketa metodologikoaren arloa dela. Honako arlo hauek barne-hartzen ditu psikometriak:

- Neurketaren Teoria: **neurketaren oinarri logikoak**. Neurketaren garapena ahalbidetzen duten baldintzen analiziaz eta egindako neurketen estatus logikoa aztertzeaz arduratzen da. Psikologiaren barnean neurketa ezinezkoa zelako ideiaen aurka sortu zen.
- Eskalamendu Ereduak. Bigarren arlo honen helburua, neurketa enpirikoki aintzat hartzearen ondorioz esleitze numerikoaren metodoak garatzea izango da.

Eskalamenduak eskala fisikoren batean erreferentea duen kasuetan eskalamendu psikofisikoa izango da eta, aldiz kontrako kasuan, aldagai psikologikoak erreferente fisikorik ez duenean, **eskalamendu psikologikoaz** ari gara.

→ Testen Teoria. Testa, subjektuek emandako erantzunen bidez haien gaitasunen neurria ondorioztatzeko diseinatuta dagoen neurketa-tresna da. Subjektuek lortutako puntuazioak eta probek neurtzen dituzten aldagaien arteko erlazioak azalduko dituzten eredu gainean eraikitzen dira testen teoriak.

Inferentzia psikometrika balioztatuko duen ereduak sortzea eta garatzea da testen teorien xedea. Horretarako, zenbait pausu jarraitu behar izango dira, 3 fase hain zuzen ere: a) **behatutako puntuazioetan emaitzak eraldatu** (eskalamendu fasea); b) **puntuazio enpirikoan eragiten duen neurketa-errorea zenbatestea** (fidagarritasuna); c) **tresnak bere objektua neurtzeko duen gaitasuna aztertzea** (baliagarritasuna).

- Testen Teoria Klasikoa: asmatu zen lehenengo teoria da eta gaur egun erabiliena da. **Eredu lineal batukor** honek behaturiko puntuazioa, benetako puntuazioa eta zorizko neurketa-erroreak lotzen ditu.
- Orokorgarritasunaren Teoria: testen teoria klasikoaren orokortze bat da, **eredu konplexuago** baten bitartez neurketa-errorearen iturriak bereizi eta zenbatesten dituen.
- Irizpideari Loturiko Neurketa: teoria klasikoak subjektuen ordenamendu erlatiboa gauzatzen du; irizpideari loturiko neurketa, berriz, **subjektuak aurrez definitutako eremuan lortutako mailaren arabera** sailkatzen ahalegintzen da.
- Itemari Erantzutearen Teoria: itema zuzen erantzuteko probabilitatea eta neurtutako aldagaian subjektuak duen maila lotzen dituen **eredu matematikoen** multzoa da. Testen teoria klasikoaren muga asko gainditzeko asmoa du eredu honek.

→ Eredu Formalen Garapena: estimazio prozedurak + eredu berriak.

★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★

1.2. Aurrekariak

★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★

Psikologian ezin zen ezer neurtu ez baitira aldagai fisikoak. Zerbait fisikoki neurtu ahal izateko, aldagaiak **konkatenatu** behar ziren eta aldagai psikologikoak konkatenatu ezin direnez, ezin ziren neurtu. Konkatenazioa, beraz, beharrezkoa zen. Nola hausten du psikologiak baieztapen edo arau hori?

PSIKOFISIKA

Psikofisikaren garapenak, psikologia experimentalaren sorrera ekarri zuen. Garaiko kontzepzio filosofikoari aurre egiteko, erabat psikologikoa zen fenomeno baten intentsitatea kuantifikatzen ahalegindu zen Fechner. Horretarako, Weber-en lanetan oinarrituz, sentsazioen **zeharkako neurketa-metodoak** garatu zituen.

***Sentsazioak** (aldagai fisikoak) neurtzen ditu, aldagai fisikoen errepresentazio psikologikoa. Eremu fisikoa eta psikologikoa elkartzen ditu, aldagai psikologikoak neurgarriak direla onartuz.

Aurrerapauso ikaragarria izan zen hori, psikologiaren barnean lehenengo metodologia kuantitatiboa erabiltzea baitzekarren.

Thurstone-k psikologiarentzat sozialki onartutako posizioa eta rola eratzten lagundu zuen. Gainera, neurketa-objektua **jarreraren** alorrera eramatea lortu zuen. Haren lanetan ez dago aldagai psikologikoak neurtzeko inongo erreferente fisikorik, eta neurketa erabat psikologikoa sustatzen du.

Autore honek sortu zuen psikologiaren historian lehenengo **eskalamendu-metodoa: Binakakoen Alderatzearen Legea**.

Azkenik, Stevens-ek psikofisika berretsi eta **metodo zuzenak** izeneko ikerketa metodoak sortu eta **eskalak** ekarri zituen.

NORBANAKOEN DESBERDINTASUNAK

Darwin-en eboluzioaren teoriak eta datuen analisirako teknika estatistiko aurreratuen garapenak lan ildo berri bat zedarritu zuten, psikofisikatik bereizia dena; gaur egun testen teoria deritzona. Britainia Handian, Frantzian eta Estatu Batuetan du jatorria jakintza-alor honek.

↳ **Britainia Handia:** Galton-ek ikuspegi berri bat eman zion pentsamenduaren bi gune bateratuz. Alde batetik, eboluzioaren teoriaren oinarriak alor psikologikora ekarri zituen, psikologia aplikatuaren garapenerako desberdintasun psikologikoak ikertzeak duen garrantzia nabarmenduz. Bestetik, datu biologiko eta sozialei aplikatutako kurba normalaren kontzeptu estatistikoa-rekin lanean hasi zen.

Laborategi antropometrikoa sortu zuen Kensingtonen eta han neurketa antropometriko nahiz sentsomotor anitz

